



Irurita gotzainaren heriotzaren misterioa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Montcada i Reixac (Bartzelona), 1936ko abenduaren 3a. Manuel Irurita Almandotz apaiz nafarra, Lleidako eta Bartzelonako gotzain izana, hilerrian fusilatu zuten anarkistek, agintari frankistek zabaldu zuten bertsio ofizialaren arabera. 1950ean Iruritaren beatifikazio prozesua abiatu zen, 1980ko hamarkadan bultzada handia izan zuena, eta azkenik, 2002an dokumentazioa Vatikanora bideratu zuten. Baina orduan, mende aldaketarekin bat, Larraintzarreko apaizaren heriotzaren bertsio ofiziala zalantzan jartzen zuten ahotsak ugaltzen hasi ziren.

1936ko uztailean, Espainiako Gerra Zibila piztu zenean, herritarrek egoitza episkopala eraso zuten, eta gotzain integrista, ultrakontserbadore eta antikatalanistak ihes egin zuen eta ezkutatu egin zen. Baina handik hilabete batzuetara miliziano errepublikarrek atxilotu eta Montcadan hil zuten, besteak beste, Marcos Goñi ilobarekin batera, kontakizun frankistaren arabera. Bartzelonako katedralean dauden gotzainaren ustezko arrastoei DNaren froga egingo zieten aurrerago eta Iruritarenak edo haren senitarteko batenak zirela baieztatu zuen emaitzak; baina ilobarenak ere izan zitezkeen eta arrastoen hortz-haginak aztertu zituztenean, ez zetozen bat gotzainaren historia medikuak zioenarekin.

Gainera, Pio XI.aren Vatikanoko artxiboak publikora zabaldu zirenean, hainbat dokumentu ere bertsio ofiziala gezurtatzen zuten: informazio zerbitzu



frankisten arabera, Irurita bizirik zegoen 1937an, eta Vatikanoko uste zuen oraindik ere bizirik zela 1938an. Joan Bada historialariak Nazioarteko Gurutze Gorriko dokumentazioa aurkitu zuen, 1937ko udazkenean bizirik zegoela zioena. Eta hainbat lekukok Bartzelonan ikusi omen zuten 1939ko urtarrilean.

Baina 1936ko abenduan fusilatu ez bazuten, noiz eta nola hil zen Irurita gotzaina? Josep Maria Rafols historialariak misterioa argitu eta *La increíble historia del bisbe Irurita* (Base, 2021) liburuan azaldu du. "Topatu nuen dokumentu baten arabera, Bartzelonako polizia buruaren espioi batek, Luis Marti Olivares Rebalsoko markesak Parisen erbeste-

ratutako anarkosindikastelen artean infiltratzea lortu zuen 1939an. Federica Montseny, García Oliver eta CNTko beste buruzagi batzuekin harremanetan, jakin zuen Irurita 1939ko otsailean hil zutela CNTko kideek, La Seu d'Urgelletik Andorrarako bidean".

Orduan, oraindik bizirik zegoela jakin arren, frankistek zergatik zabaldu zuten bertsio okerra? Errepublikarrek hainbat saiakera egin zituzten gotzainaren truke hainbat preso errepublikar aska zitzaten, "baina ez zuten emaitzarik lortu. Hirutan Franco jeneralak berak geldiarazi zituen saiakerak, Irurita gorrien izugarrikerien martiria izatea komeni zitzaiolako". ●

Egiptoko objektuen bidaia luzea

Salamancako El Cerro de San Vicente aztarnategian, Burdin Aroko kastroan aurtengo udan egindako indusketa kanpaina, orain arte Iberiar penintsularen barnealdean aurkitu ez diren objektuak topatu dituzte, jatorria Mediterraneo ekialdean dutenak: zeramika beiratzatutako aleak, apaindutako kaiku zati egiptoar bat, Hathor jainkosa

egiptoarraren amuleto eskematikoa... Carlos Macarro arkeologoaren esanetan, "ekialdeko tradizioaren kutsua duten pieza hauek feniziarrek ekarri zituzten". Ikerlarien ustez, lurralde hori aberatsa zen burdinetan eta kasiterita mineraletan, eta horrek garaiko merkataritza bide nagusiekin lotu zuen kastrotia. ●



SALAMANCAKO UNIBERTSITATEA